

Bezeroarekiko harremana

Oso garrantzitsua da bezeroarekin harreman zuzen bat eta konstantea edukitzea. Horretarako, bezeroak erakartzeko hainbat estrategia erabiliko ditugu.

Alde batetik, bezero edo kontsumitzaile berriak lortuko ditugu publizitateari esker. Hainbat kanpainak egingo ditugu eta horrekin batera, erakundeekin ekintzak. Bestalde, dauden bezeroak mantentzeko, aurrez aurreko zerbitzua edukiko dugu denda fisikoetan, eta bertan, zerbitzu pertsonalizatua edo pribatua eskainiko diogu behar duenari edota txalekoarekin erlazionatuta dagoen edozein arazo konponduko dugu. Web orrialdetik kontaktatuz gero, zerbitzu automatikoa izango du bezeroak. Salmenta kopurua handitzeko txalekoen berrikuntzak egingo ditugu, hori dela eta, beraiekin harreman egokia badugu eta erosketa apropos bat egin dutela jakinarazten badiegu, azkenean sentsazio positibo hori transmitituko dira eta ahoz-ahoz gure bezeroak erosle berriak lortuz.